

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

208/2020 Foru Agindua, irailaren 14koa, hasierako onespena ematen diona ondoko proiektuaren interes publikoa adierazteko espedienteari: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzekoa, Lantziego eta Guardiako udalerrietan, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk sustatuta, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar igarotzeari dagokionez

I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (Iberdrola Taldea) udalaren obra lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari proiektu honetarako: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzekoa, Lantziego eta Guardiako udalerrietan. Honetan datza: Linea elektriko misto bat, airekoa eta lurpekoa, hedatzean Lantziegoko udalerrian dagoen El Carrascal industrialdetik, ondoren El Carrascal aurkintza (Lantziego) zeharkatuz eta Guardiako udal barrutiko Malpica aurkintzan dagoen Casablanca 2 industrialdetik hurbil doan beste linea elektriko batekin lotuz, guztira 1.400 metroko luzerarekin gutxi gorabehera.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai dira proiektu teknikoa eta udaleko arkitektoak bidalitako txostena, zeinean adierazten baita lineak zeharkatzen dituen lurrak gehienbat "Nekazaritza intereseko zonak babesteko lurzoru urbanizaezin" moduan sailkatu daudela, eta haren hegoekialdeko muturrean, "Lehengoratu beharreko baso zonak babesteko lurzoru urbanizaezin" moduan. Bat etorri udalerriko indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoarekin, baimenduta dago onura publikoko eta interes sozialeko erabilerak jartzea (112. eta 113. artikulua).

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, lurzoru urbanizaezinean egin daitezke "ondoren zehazten diren zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzea beste helbururik ez duten jarduketak: alde batetik, arlo jakin bateko legeriak –aplikatzekoa denak– edo lurraldearen plangintzak interes publikokotzat jo dituenak, eta bestetik, kasu jakinetan, dagoen foru-aldundiak interes publikokotzat jo dituenak; bigarren hori, 20 eguneko jendaurrean edukitzeko tramitea bete ondoren, ebazpen baten bidez egingo du".

Bigarrena. Aztertutako kasuan, hasierako onespena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onespenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea ondoko proiektuaren interes publikoaren adierazpenari buruzko espedienteari: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria

lotzekoa, Lantziego eta Guardiako udalerrietan, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (Iberdrola Taldea) sustatuta, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean zehar igarotzeari dagokionez.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean jartzea, hogeit egunez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan, nahi duen orok egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu. Interesdunek Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuan azter dezakete espedientea.

Hirugarrena. Foru agindu hau kualifikatu gabeko izapide egintza bat da eta haren aurka ez dago errekurtsua jartzerik.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO